



BIZKAIKO XAKE FEDERAKUNTZA FEDERACION VIZCAINA DE AJEDREZ

Martín Barua Picaza, 27 (Kirol Etxea) 48003 BILBO Tel: 94 4415231
www.fvda.org info@fvda.org

KLUBEN LIGA 2017

Ezaugarri Orokorrak

Emaitzen jakinarazpena

Etxean jokatzeko duen taldeko kapitaina arduratu beharko da txanda bakoitzean emaitzak emateaz. Emaitzaren jakinarazpena domekan, gaueko 12:00 baino lehen Federazioari helarazi beharko dio (Tel/fax: 944415231 e-postal: info@fvda.org).

Hau egin ezean, ez agertze partzialerako zehaztutako zigorra ezarriko da.

Era berean, etxeko taldeko kapitainak Federazioari partidako aktak eta planillak bidaliko dizkio dagozkien ohartxoekin, astebeteko epean. **Aktak eta planillak e-postaz bidali daitezke eskaneatuta** Hau egin ezean, aurreko atalean aipatutako zigor berberak aplikatuko lirateke.

Emaitza faltsutzeak, partida zein akta batenak, inplikaturako talde bien deskalkifikazio automatikoa ekarriko du, eta berriro ere egindako ez agertze osoari dagokion zigorra aplikatuko da.

Sailkapen taula eta informazioa

Astero eta txanda bakoitzaren ondoren, Federazioak txandako emaitzak jakinaraziko ditu. Horrez gain, eguneratutako sailkapen taula egongo da Bizkaiko Xake Federazioaren informazio panelean eta Federazioaren webgunean (www.fvda.org); emaitzak e-posta bidez ere bidaliko dira.

Klubaren formalizazioa eta lizentziak

Klubek eta xakeko sekzioek beraien estatutuak formalizatuta izan behar dituzte, edo hau lortzeko tramitazio ofizialetan daudela akreditatu. Erlazionaturako jokalariek guztiek federazioko lizentzia eskatuta izango dute, 2003an eta ondorengo urteetan jaiotakoak salbu –hauek eskolako lizentzia eduki beharko dute–. Baldintza biak hasierako txandatik bete beharko dira.

Taldearen izen ematea

Ligako taldeen izen ematea klubek beraien tramitatuko dute, taldeetako jokalarien zerrenda aurkeztuz.

Aurkeztu beharreko datuetan honakoa agertu beharko da: taldearen izena, jokalarien izen abizenak, beraien kategoria indibiduala, kapitainaren edo ordezkariaren telefonoa eta taldearen etxeko helbidea (non jokatzeko duten).

Taldearen osaketa

Talde bakoitza gutxienez 5 jokalarik osatuko dute, eta horietako bat kapitaina edo taldearen ordezkaria izango da. Azpiko-taldeak dituzten taldeek 4 jokalarik izan ditzakete. Jokalariak beraien kategoria indibidualaren arabera agertuko dira ordenatuta, eta ordena horretan jokatu beharko dute.

Taula kopurua: lau

Zerrenda irekiak (hirugarren mailan izan ezik). Klub bateko edozein taldetan izena emanda dauden jokalariek maila goragoko talde batean partida bat joki dezakete, eta Ligarako izena emanda zuten hasierako taldearekin jarraitu. Jokalariren batek bigarren partida bat maila goragoko talderen batean jokatzen badu, azken honetan baino ezingo du jarraitu jokatzen. Gazte mailako jokalariek eta emakumezkoek euren hasierako taldean jarraitu dezake maila goragoko taldean 4 partida jokatu arte. Aktan beste talde bateko jokalaria izatera islatu behar da. Beste talde batetik gora egiten duen jokalaria legokeen azken taulan jokatuko du bere banakako maila errespetatuz.

Jokalaria batek ezingo du inola ere bere hasierako taldea ez den talde bi edo gehiagotan parte hartu. Halaber, ezingo da txanda berean bi talde ezberdinetan aritu.

Adibidez: 2. mailan izena eman duen jokalaria batek 1. mailan partida bat jokatzen badu, 2. mailan jokatzen jarrai dezake. Berritri ere 1. mailan jokatzen badu, 1. mailan baino ezingo du jarraitu. 2. mailan izena eman duen jokalaria honek ezingo luke partida bat 1. mailan eta beste bat Preferente mailan jokatu.

Jokalaria batek Euskal Xake Ligan parte hartzen badu, ezin izango da Bizkaiko Ligan jokatzerara bueltatu. Jokalaria jubenila bada, Bizkaiko Ligan jarraitu ahal izango du Euskal Xake Ligan 4 txanda jokatu arte.

Taldeen desegitea Ligan

Klubaren batek aukera duen mailan talderen baten izena eman nahi ez badu, behin betiko galduko du eskubide hori eta ondoko urteetan talde hori maila horretatik desagertuko da.

Klubaren Liga

Ligako taldekako txapelketa lau (4) mailatan banatuta dago, ondoko beheranzko ordenean:

- a) Preferente maila
- b) Lehenengo maila.
- c) Bigarren maila
- d) Hirugarren maila

Taldearen osaketa

Maila bakoitza bertan parte hartzeko eskubidea duten taldeek osatuko dute. Halaber, maila hauek taldeka banatuta egon daitezke, hala behar izanez gero.

Talderen batek uko eginez gero, aurreko denboraldian mailaz jaitsitako ondoen sailkatutako taldea aukeratuko da. Bi talde egonez gero, puntuazio altuena duena.

Talde berean klub bereko talde bi edo gehiago baleude, haien arteko lehia lehendabiziko jardunaldietan izango da eta gainontzeko taldeen ordena zozketatu egingo da.

Jokatze data eta ordua

Ofizialki urtarrilean hasiko da, larunbatetan jokatuko da arratsaldeko 16:00etatik aurrera. Hau guztia atzerapenei buruzko 29. artikuluari kalterik egin gabe.

Jokuaren denbora

90 minutu, gehi 30 segunduko gehitzea jokaldiko jokalaria bakoitzarentzat.

Arautzeak

FIDEn indarrean den araudia eta Euskal Xake Federazioaren interpretazio eta arau osagarriak aplikatuko dira.

Jokalekua eta materiala

Lokalaren egokitzapenak (argia, aireztapena, berogailua, edukiera, eta abar) zein ekipamenduak (jokuak, mahaiak, aulkiak, planillak, erlojuak, aktak, eta abar) txapelketarako baldintza egokiak eduki beharko dituzte.

Partiden aurrerapena edo atzerapena

Txanda bateko partidak aurrera daitezke, behin aurrekoak jokatu. Halaber, txanda bateko partidak atzera daitezke, beti ere azken bi txandak baino lehen jokatzen direnean. Egun eta ordu ofizialean jokatuko diren azken bi txandak ez daude aukera honen barne. Aldaketa honetarako, beharrezkoa da bi taldeen adostasuna eta Federazioaren onespina, data eta orduaren informazioa utziz. Talde biek, data eta ordu ofiziala baino 24 orduko aurrerapenarekin gutxienez jakinarazi beharko diote Federazioari.

Federazioak norgehiagoka bat edo txanda bat atzera dezake arrazoitutako zerbaitengatik.

Ordezkoak eta sartze berriak.

Taldearen indar-ordenan gutxienez bost (5) jokalaria egon beharko dira. Egoera bat gertatu behar denean, taulak ordenan desplazatuta egingo da.

Hasierako indar-ordenan ez dagoen inkorporazio berririk bada, Federazioari jakinarazi beharko zaio eta klubei jakinarazi ondoko astean izango da indarrean, beti ere zazpigarren txanda hasi aurretik, ezinbesteko kausa denean izan ezik.

Jokalaria klubez aldatzea

Jokalaria bat klubez alda daiteke, denboraldian zehar, taldekako edozein txapelketa ofizialetan beste klub batekin inolako partidarik jokatu ez badu. Guzti hau ordezkoen eta inkorporazio berrien artikuluan ezarritakoam betez egingo da.

Aktak betetzea eta kontra-egite posibleak

Taldeetako kapitainek, partida hasi aurretik, akta bete beharko dute beraien taulen lerrokatzearekin, eta, partidaren ostean, taldeko ordezkariak edo kapitainak emaitzak eta izenpea idatzi beharko ditu. Aldeetako batek sinatzeari uko eginez gero, horrela jasoko da. Oharrak, intzidentziak edo inpugnazio posibleak aktaren atzealdean edo atxikita zehaztuko dira.

Kirol Batzordea

Federazioak kirol ikuskatzaileak ditu, eta hauen aurrean aurkeztu beharko dira txapelketan zehar sortutako arazoak. Erabakia, gehienez, 20 eguneko epean adierazi beharko da. Erabaki honen aurkako helegitea Federazioaren kirol batzordean aurkeztu beharko da, hartu izanaren adierazpenetik hilabeteko epean. Kirol batzordearen erabakia betearazlea izango da eta 20 eguneko epean adieraziko da. Federazioak uste duenean kasu diziplinarioetan kirol batzordeak esku hartu behar duela, hauek bideratzeari ekingo dio.

Berdinketa hausteko sistema

Azken sailkapenen puntuen arabera berdinduta dauden taldeen ordena honakoaren arabera ezarriko da:

- a) Partida guztietako puntuak ordezkatzuz: 3 puntu (irabazi), puntu 1(berdindu) eta 0 puntu (galdu)
- b) Norgehiagoka partzialeko emaitza kontuan hartuz.
- c) Sonnenborg-Berger (taldeen metodoa)
- d) Holandar sistema.

Erlojuak abian jartzea

Partidetarako zehaztutako orduan, pieza zuriak dituzten jokalarien erlojuak jarriko dira martxan. Hala ere, pieza zuriak dituen jokalaria ez dago behartuta mugitzera aurkaria aurreran ez bada eta nor den ez badaki, taldearen jokalarien-zerrenda aktan ez delako. Bitartean, aurkariaren erloju

martxan jar dezake berau agertu arte, edota nor den jakin arte aurkarien taldeko kapitainaren jokalarieren-zerrendaren bidez.

2 taldeen atzerapena

Justifikatutako egoeretan izan ezik, partidarako zehaztutako ordua baino ordu bete beranduago heltzen den jokalaria edo taldeak, lehenengo neurritzat, partida galduko du.

Lehenengo ordu horretan bi taldeak atzeratuz gero, atzerapeneko ordua bi taldeen artean banatuko da.

Ez agertzeak eta zigorrak

Ez agertze partzialtzat joko da, jokalaria bat edo bi partida hasi zenetik ordu bat baino lehen agertzen ez direnean jokalekuan.

Diren jokalariek lehen taulak hartuko dituzte, eta hutsik utzi azkenak.

Behin egindako ez agertze partziala, ohartarazpena izango da taldearentzat. Behin errepikatuta, 10€ko multa izango du araua hautsi duen taldeak.

Ez agertze osotzat joko da, taldea aurkezten ez denean edo erdia baino jokalaria gutxiagorekin agertzen denean norgehiagoka hasi zenetik ordu bete baino lehenago.

Ez agertze osoa denean, 10€ko isuna izango du araua hautsi duen taldeak. Berrito ere eginda, taldea txapelketatik kanpo eta mailaz jaitsiko da automatikoki; horrez gain 20 €ko isun gehigarria izango du.

Federazioak aktak gainbegiratu eta ofizioz edozein arau-hauste zigortuko du (jokalarieren-zerrenda okerra, eta abar).

Igoerak eta jaitsierak

Preferente maila

Euskal B Ligara igoko da kategoria honetan talderik ez daukan lehen sailkatua.

Lehen mailara talde bat eta Euskal Ligatik jaitsiko diren talde bizkaitarrak jaitsiko dira.

Lehenengo maila.

Lehen bi sailkatuak igoko dira Preferente mailara.

Bigarren mailara jaitsiko direnak hiru talde izango dira, eta baita, Euskal Ligatik jaitsiko direnak ere.

Bigarren maila

Talde bakoitzeko lehen bi sailkatuak igoko dira Lehen mailara.

Orotara bost talde jaitsiko dira hirugarren mailara eta baita Euskal Ligatik jaitsi adina talde ere, bi taldeen artean berdin banaturik. Taldeak bakoitiak balira, norgehiagoka izango da aukera duten bi taldeen artean.

Hirugarren maila

Talde bakoitzeko lehen bi sailkatuak igoko dira bigarren mailara.